

Gesto por la Paz

Prentsaurrekoa Gesto por la Paz

Convocatoria de la Manifestación de Gesto por la Paz
"Bakea, bide bakarra. Sin violencia ni amenazas"
Sábado, 30 de enero de 2010. 17:30h. Bilbao

Datorren 30ean, *Indarkeria Ezaren Nazioarteko Eguna* ospatuko dugu. Guk, ohiko manifestaziorako deia luzatu nahi dugu, tamalez ETaren indarkeriak eta bere mehatxuak bere horretan dirautelako.

Aurtengo goiburua honakoa da: **"BAKEA, bide bakarra. Sin violencia ni amenazas"**

Gure ustez, BAKEA indarkeriarik ezarekin hasten da, eta euskal gizartearen etorkizun duineko bide bakarra da. Etorkizun horrek guztiontzako eta guztion Giza Eskubideak izan behar ditu oinarri.

ETAk nahiz bere inguruko oihulariek dute indarkeria akabatzeko erantzukizuna. Hori beteko balute, alegia, hain mingarria izan den indarkeriarekin akabatzeko nahikoa ausardia izango balute, elkarbizitza duineko etorkizuna prestatzeko bidean geundeke. Baina eurena da, eta ez beste inorena, indarkeriaren amaieraren erantzukizuna.

ETAk armak uzteko asmoz, politikatik edo erakundeetatik zerbait egin behar dela dioen argumentua deuseztu behar dugu; izan ere, argumentu hori erabili denean, ETaren errua biguntzen ari gara, denok zertxobait egiteke baikenuke bezala.

Indarkeria eta politika erabat bateraezinak dira. Ezin lot dezakegu gure etorkizun politikoa indarkeriaren amaierarekin; ez dugu ezer politikorik ordaindu behar. Areago, ETaren izaera justifikatzen dutenek euren burua politikaren arlotik kanpo uzten dute, indarkeriazko bidea guztiz kontrakoa baita hitzaren, berbaren eta herritarren asmoekin.

Ez dago, alabaina, gure esku indarkeriaren amaiera. Zorionez, aurrera-pausuak emanak ditugu bai indarkeriaren gaitzespenean bai deslegitimazioan, baina honek ez du esan nahi existitzen ez denik; gutako askok, oraindik ere, indarkeria eta bere ondorioak pairatzen ari dira. Izan ere, batzuek zuzenean jasan eta jaso dute biolentziaren zaplastekoa; Beste askok, ordea, egunero, uneoro, askatasuna murriztuta daukate eta euren bizia arrisku latzean. Hortaz, ezin dezakegu arazo honetatik ihesik egin, ezin dezakegu egoera latz hori ontzat eman.

Indarkeriaz jositako urte asko izan dira eta badira, tamalez. Alabaina, ezin dezakegu pentsa edozerk balio duela ETaren kontrako borrokan. Zuzenbide Estatuaren defentsa sakona egin behar dugu, hala nola Giza Eskubideen aldarri

Gesto por la Paz

etengabea. Demokrazia indartuz terrorismoa ahuldu egiten dugu, politika sendotu egiten da, eta berarekin batera, kontsentsua, elkarrizketa eta aniztasuna ere bai. Terrorismoak ez du lorpenik lortuko, ez eta demokraziaren oinarriak eskastuko ere, arren.

Honengatik guztiagatik, ezinbesteko zaigu batetik ETArri desagertzeko exijitzea, eta bestetik, tragedia honen biktimei jendaurrean gure sostengua eta elkartasuna adieraztea. Aurten, bereziki Eduardo Puelles García, Carlos Sáenz de Tejada García eta Diego Salvá Lezaun izango ditugu gogoan. Eraiketa horiek gordinki erakusten dute indarkeriaren ankerkeria, eta hartara, ezetz esango dugu kalean.

ETA nahiz bere mehatxuak existitzeak kalera eramaten gaitu, guztion gaitzespen borobila erakustera. Datorren larunbatean, hilak 30, Jesusen Bihotzeko Plazatik Udaletxeraino abiatuko gara, arratsaldeko 5.30etan. Ibilaldi ixil hau oihu bihurtzea nahi dugu, oihu anitza, izuikara pairatu eta pairatzen dutenei elkartasuna eta aitopena helaraziko diena. Era berean, ETArri exijituko diogu bere terrorrea bertan behera utz dezan. Berehala eta baldintzarik gabe. **BAKEA, bide bakarra. Indarkeriarik ez, mehatxurik ez.**

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

22 de enero de 2010

